

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0420 - Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendar
Programa:	200 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honen misioa da Foru Aldundian gobernantza ona, kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzea, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko eta gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko helburuarekin. Horretarako kudeaketa-metodologia, lan tresna, informazio-sistema eta komunikazio-kanal aurreratuak ezartzen laguntzen diegu Departamentuei.

Egoeraren diagnostikoa:

Azken urteetan Administrazio Publikoa aldaketa kultural sakonak jasaten ari da. Alde batetik, gizartearen behar eta espektatibei erantzungo dien gobernantza eredu ireki eta eraginkorra ezartzeko beharra dago. Azken urteetan kudeaketa eredu aurreratuak sortu dira eta beste sektoreetan arrakastaz ezarri dira; ondorioz gizarteak eskatzen digu erakunde publikoetan ere kudeaketa aurreratua ezartzea, baliabide publikoak era arrazionalen erabiliz gizartearen beharrak asetuko dituen. Horretarako erakundearen antolakuntza eta kudeaketako kultura aldatu behar dugu eta beste sektoreetan ezarri diren metodologiak eta lan tresnak bultzatu behar ditugu, hala nola kudeaketa estrategikoa, prozesuen arabeko kudeaketa, datuetan oinarritutako eta helburuetara zuzendutako kudeaketa, etab. Honekin batera, zuzentasun etikoan oinarritutako gobernantza ireki bat ezarri behar dugu, gardentasuna eta datuen berrerabilera bultzatuko dituen, gizartearen partaidetza bultzatuko duena, izandako emaitzen kontu emango duena eta herritarrekin komunikazio irekia izango duena.

Bestetik, informazio eta komunikazioetako teknologien garapenak eta indarrean dagoen legedi orokorrak behartzen gaitu Administrazio Elektronikoen ezarpenari bultzada ematera, gure zerbitzuak eta tramiteak kanal anitzetan eskaini ahal izateko.

Beharraren deskribapen xehatua:

- Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua departamentu guztietan ezartzea.
- Kudeaketako metodologia eta tresna aurreratuaren ezarpena sustatzea: plangintza estrategikoa, prozesuen arabeko kudeaketa, adierazleen kudeaketa, asebetetze neurketak, tramiteen sinplifikazioa, zerbitzu kartak, 5S metodologia, etab.
- Kanal anitzetan ematen diren arreta eta informazio zerbitzuak hobetzea.
- Erakundeko arduradun politikoen eta langileen funtzionarioen portaera etikoa bultzatu eta kontrolatzea.
- Administrazio Elektronikoa bideratzeko sistema korporatiboak garatzea eta ezartzea.
- Gobernu irekia bultzatzea, gardentasun maila areagotuz eta datuen berrerabilpena bultzatuz.
- Erakundean informazioaren segurtasuneko kudeaketa-sistema ezartzea.

Nori zuzendua:

- GFAko Departamentuak, Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak: gobernantza ona, kudeaketa aurreratua eta administrazio elektronikoa ezartzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- Herritarrak, enpresak eta elkarteak: kanal ezberdinetan komunikazio, informazio eta arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Udalak eta beste administrazioak: lan arlo guztietan aholkularitza eta laguntza teknikoak eskaintzen zaie.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Aurrekontuak, pertsonalaren dedikazioa, kanpo aholkularitza, baliabide teknologikoak eta aholkularitza teknikoak (IZFE).

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Kudeaketa aurreratuan Aholkularitza ematea: Zerbitzuen kudeaketa hobetzeko laguntza ematea eta metodologia eta eredu aurreratuak ezartzea.

- Gobernantza ona sustatzea: Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren funtsezko baloreen eta ezaugarrien ezarpena zuzentzea eta koordinatzea (Zuzentasun Sistema, gardentasuna, datu irekiak)
- Kanal anitzetako arreta eta Infomazioa: Aldundiaren aurrez aurreko, telefono bidezko eta Internet bidezko arreta eta informazio orokorra ematea.
- Aplikazio Korporatiboak garatzea: Aldundiko aplikazio korporatiboak diseinatu, ezarri eta mantentzeko laguntza ematea.
- Administrazio Elektronikoa: Administrazio elektronikoaren ezarpena bultzatzea, horretarako beharrezko diren sistema eta tresnak garatuz eta erakundeko departamentuetan ezartzen lagunduz.
- Informazioaren Segurtasuna eta Datu Pertsonalen Babesa: Informazioaren segurtasunaren kudeaketa aurrera eramateko laguntza ematea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Arlo ezberdinetan aholkularitza teknikoak.
- Hobekuntza proiektuak: kudeaketa aurreratuko ereduaren inguruan eta metodologia eta tresna ezberdinen inguruan.
- Aplikazio korporatiboak: erakunde osoan erabiltzeko diren aplikazioak eta hauen mantenua eta hobekuntza.
- Administrazio Elektronikoa garatzeko sistemak eta aplikazioak, eta hauek ezartzeko laguntza teknikoak.
- Gardentasuneko edukiak eta datu irekiak argitaratzeko laguntza eta baliabide teknologikoak.
- Informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseko arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

- Prozedura Administratibo Orokorreko 39/2015 Legea
- Sektore publikoaren araubide juridikoko 40/2015 Legea.
- 4/2019 Foru Araua, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan
- Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzeko 23/2010 Foru Dekretua
- Administrazio Elektronikoko 11/2007 Legea
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituen 26/2005 Foru Dekretua
- Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra
- Administrazio arloko arautegi orokorra

DEPARTAMETUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Foru Erakundearen lan metodoak eta kudeaketa sistemak hobetzea eta eraldatzea, eta erabat zeharka jardutea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonen zuzendutako inkestaren “Asebetetze maila orokorra” eremuan lortutako batez besteko puntuazioa	Kopurua	>=	9,40	9,40	9,40	9,40
Online abiarazi daitezkeen GFAko izapideen portzentajea (aurrerapenaren 3. maila Administrazio Elektronikoa)	Ehunekoak	>=	76,00	77,00	78,00	95,00
Kudeaketa Aurreratuaren ereduak ezarri duten edo urrats bat eman duten Zuzendaritza Nagusien %	Ehunekoak	=	19,00	19,00	30,00	100,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Aurreratuko eredua ezartzea Zuzendaritza Nagusietan

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	82.014,23			2020/01/01	2020/12/31	
1.1 Ekintza Foru Aldundian kudeaketa aurreratua garatzeko plangintza aurrera eramatea	82.014,23			2020/01/01	2020/12/31	

2. Jarduketa ildoak:

Gizarte eragileek eta herritarrek ohiki egiten dituzten GFaren ardurapeko 100 tramite hautatzea, tramite horiek egiteko modua sinplifikatzeko, arintzeko eta desburokratizatzeke

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	29.842,33			2020/01/01	2020/12/31	
2.1 Ekintza Izapide berriak digitalizatzea: - App mugikorren garapena - Dirulaguntzak aplikazio korporatiboan txertatzea - Formulario elektroniko berriak garatzea - etab.	29.842,33			2020/01/01	2020/12/31	

3. Jarduketa ildoak:

Espediente elektronikoarekin egiten diren tramiteen eta mugikorrerako aplikazioen bidez ematen diren foru zerbitzuen kopurua handitzea

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	14.921,15			2020/01/01	2020/12/31	
3.1 Ekintza Espediente Elektronikoko proiektuak identifikatu, bultzatu eta hauetan parte hartzea	14.921,15			2020/01/01	2020/12/31	

4. Jarduketa ildoak:

Herritarrekin zuzenean komunikatzeko telefono bakar bat eta komunikazio kanal berriak martxan jartzea

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	538.332,87			2020/01/01	2020/12/31	
4.1 Ekintza Leihatila bakarreko sistemaren oinarri izango den informazio sistema korporatiboa garatzea, arreta eta informazio prozesuak	524.332,87			2020/01/01	2020/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
hobetzea eta komunikaziorako kanal berriak garatzea						
4.2 Ekintza Foru Aldundiaren Jauregira bisita gidatuak antolatzea	14.000,00			2020/01/01	2020/12/31	
5. Jarduketa ildoak: Open Data eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Arau bat onartzea, datu baseak eta komunikazio kanalak pixkanaka irekitzea, informazio baliagarri, egiazko eta garrantzitsua denbora errealean emateko						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	118.631,03			2020/01/01	2020/12/31	
5.1 Ekintza Aldundiko datu baseak irekitzeko plangintza aurrera eramatea, datuak era irekian argitaratuz	22.329,57			2020/01/01	2020/12/31	
5.2 Ekintza Gardentasuneko edukiak bildu, prestatu eta argitaratzea	73.971,90			2020/01/01	2020/12/31	
5.3 Ekintza Gipuzkoa Irekia gobernu irekiko ataria mantendu eta hobetzea	14.921,15			2020/01/01	2020/12/31	
5.4 Ekintza Gobernu Irekiko plana garatu eta ezartzea	7.408,41			2020/01/01	2020/12/31	
6. Jarduketa ildoak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren informazioaren segurtasunari buruzko Foru Araua onartzea						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	52.171,90			2020/01/01	2020/12/31	
6.1 Ekintza GFAREN Informazioaren Segurtasuna kudeatzeko sistema progresiboki ezartzea	52.171,90			2020/01/01	2020/12/31	
7. Jarduketa ildoak: Erakundearen zuzentasuna eta etika publikoa bultzatzeko politika garatzea						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	147.792,31			2020/01/01	2020/12/31	
7.1 Ekintza						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Zuzentasun Sistemaren inguruko prestakuntza eta zabalkuntza egitea	7.408,41			2020/01/01	2020/12/31	
7.2 Ekintza Foru administrazioaren hobekuntza eta berrikuntza programa	36.808,41			2020/01/01	2020/12/31	
7.3 Ekintza Compliance sistemen auditoretza eta ziurtapena	5.299,99			2020/01/01	2020/12/31	
7.4 Ekintza Gobernantza Onaren sustapenerako ekintzak - Zabalkunderako ekitaldiak (ate irekietako jardunaldiak, bilerak, prestakuntza saioak) - Nazioarteko sareetan parte hartzea - Gobernantza Onaren inguruko Graduondokoa kudeatzea	98.275,50			2020/01/01	2020/12/31	
Urteko helburua: Korporazioaren sistemen eta aplikazioen hobekuntzarako eta mantentzeko proiektuak garatzea						
Adierazlea	Neurri- unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Kudeaketa sistemekin eta korporazioaren aplikazioekin lotuta abiarazitako edo martxan dauden proiektuen kop.	Kopurua	>=	16,00	0,00	16,00	15,00
Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFaren zerbitzuei zuzendutako inkestaren balorazio orokorra elementuan lortutako batez bestekoa	Kopurua	>=	7,76	0,00	7,80	7,80
Gobernu Onaren Foru Arauan zehaztutako publizitate aktiboko elementuen betetzearen portzentajea	Ehunekoa	=	89,00	89,00	94,00	100,00
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Departamentuei aholkularitza eta laguntza eskaintzea, kudeaketa eta zerbitzuak hobetzeki begira						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildo a, guztira	188.049,85			2020/01/01	2020/12/31	
1.1 Ekintza Zerbitzu karta berriak ezartzen laguntzea eta martxan daudenen urteroko eguneraketa egitea	22.329,57			2020/01/01	2020/12/31	
1.2 Ekintza Kudeaketa sistemak ezartzen eta mantentzen laguntzea (ingurumena, prozesuen bidezko kudeaketa, plangintza estrategikoa, 5Sak, etab.)	59.580,31			2020/01/01	2020/12/31	
1.3 Ekintza Aldundian Berrikuntza Kudeatzeko Sistema diseinatu, garatu eta ezartzea	56.300,76			2020/01/01	2020/12/31	
1.4 Ekintza Bestelako hobekuntza ekintzak: Euskalit ebaluazioak, Qepea sarea, Bikain, etab.	49.839,21			2020/01/01	2020/12/31	
2. Jarduketa ildo a: Administrazio elektronikoa garatzea						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildo a, guztira	134.186,13			2020/01/01	2020/12/31	
2.1 Ekintza Administrazio elektronikoari buruzko araudira egokitzeko sistema eta aplikazioak garatu eta mantentzea eta departamentuei hauek ezartzen laguntzea	104.343,80			2020/01/01	2020/12/31	
2.2 Ekintza Erakundeen arteko elkarerreragingarritasuna antolatu eta sustatzea	29.842,33			2020/01/01	2020/12/31	
3. Jarduketa ildo a: IZFEren inbertsioak						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildo a, guztira	3.800.662,00			2020/01/01	2020/12/31	
3.1 Ekintza IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak	3.800.662,00			2020/01/01	2020/12/31	
4. Jarduketa ildo a: Zerbitzuaren kudeaketa						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	24.421,15			2020/01/01	2020/12/31	
4.1 Ekintza Zerbitzuaren kudeaketako ekintza operatiboak: - Aginte Koadroa kudeatzea - Ezagutzaren Zaintza - Kontabilitatearen kudeaketa - Presentzia Kontrola - Ohiko jarduera gastuak eta dietak kudeatzea	24.421,15			2020/01/01	2020/12/31	
5. Jarduketa ildoak: Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	52.171,90			2020/01/01	2020/12/31	
5.1 Ekintza Aldundiko informazio sistemak mantendu eta hobetzea: gipuzkoa.eus, egoitza elektronikoa, intranet, etab.	52.171,90			2020/01/01	2020/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa publikoan genero ikuspuntua txertatzeko beharra

Kuantifikazioa: 6.344,45 (% 0,12)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 60,00)	Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jarduera guztien planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea. Or 1.5. Sexu aldagaiaren txertaketa sistematikoa foru ikerketa eta estatistiketan, antzemandako desberdintasunen genero ikuspegiko azterketa, eta emakume eta gizonen egoerari buruzko berariazko diagnosi sektorialak egitea. Or 1.6. Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatu eta beren jarraipena egitea, bai aurretiko balorazioa egiten denean eta bai, bereziki, lana betetzeko baldintzetan.	Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).
Or 2. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzat indartu.	(% 20,00)	Or 2.1. Berdintasunerako departamentuen arteko egituren indartzea, beti ere berdintasunerako planifikazioa eta jarduera koordinatu, hausnartu eta erabakiak hartzeko.	Berdintasunerako Batzorde Politikoaren, Azpibatzorde Politikoaren, Departamentu Arteko Talde teknikoaren eta Departamentuko barne unitateen bilera kopurua. Berdintasunerako bere politikak egiteko laguntza jasotzen duten Gipuzkoako udal kopurua. Berdintasunerako Organoak parte hartu duen lurralde arteko erakundeen bilera eta topaketa kopurua.

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 2. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaz indartu.	(% 20,00)	Or 2.1. Berdintasunerako departamentuen arteko egituren indartzea, beti ere berdintasunerako planifikazioa eta jarduerak koordinatu, hausnartu eta erabakiak hartzeko.	Berdintasunerako Batzorde Politikoaren, Azpibatzerde Politikoaren, Departamentu Arteko Talde teknikoaren eta Departamentuko barne unitateen bilera kopurua. Berdintasunerako bere politikak egiteko laguntza jasotzen duten Gipuzkoako udal kopurua. Berdintasunerako Organoak parte hartu duen lurralde arteko erakunde bileren eta topaketak kopurua.

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Foru Aldundian kudeaketako eredu eta herritarrentzako zerbitzu aurreratuak ezartzeko orduan eta Administrazio Elektronikorako sistema eta aplikazioak garatzeko orduan hizkuntza ofizialen kudeaketa txertzea, ahal den neurrian euskara lan hizkuntza bezala indartuz.

Kuantifikazioa: 5.211,42 (% 0,10)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.3. Ingurune digitala	(% 12,50)	1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 12,50)	2.1.1. Idatzizko harremanak
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 25,00)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak
		2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak
		Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
		Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 50,00)	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hobekuntzako proiektu giltzarrietan herritarren nahiz Aldundiko langileen partaidetza bultzatzea.

Kuantifikazioa: 563,01 (% 0,01)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Norekin
1. Espazio edo egitura parte-hartzaile bat	(% 100,00)	Aldundian barneko berrikuntza sustatzeko eta bideratzeko lantalde edo foro bat sortzea da helburua	Teknikariak

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2019	2020	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2021	2022	2023	2024 eta hurrengoak/ 2024 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.142.796,00	1.043.438,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	433.600,00	339.100,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.576.396,00	1.382.538,00					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.989.561,00	3.800.662,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	1.989.561,00	3.800.662,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	3.565.957,00	5.183.200,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		1.043.437,97				1.043.437,97
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		339.096,88				339.096,88
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		1.382.534,85				1.382.534,85
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		3.800.662,00				3.800.662,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		3.800.662,00				3.800.662,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		5.183.196,85				5.183.196,85